

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2014ko ekitaldirako diru-laguntzak ematea.
2. Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2014ko ekitaldirako lurralde-batzordeetan eta hauteskunde sindikalen batzordean parte hartzeagatik.
3. Diru-laguntzak enpresarien elkarrekin eta erakunde sindikalei beren jardura-eremuetako berezko gaiak dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.
4. Udalen harrera-sarea finkatzea:
 - Immigrazio-teknikariak kontratatzeko jarraitze laguntzak (TEC lerroa).
 - Immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak (LOC lerroa).
5. Esku-hartze sozialaren eremuan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko diru-laguntzak.
6. Pertsonekin, familiarekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.
7. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adoptatu aurreko familia-harreragatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa.
8. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa.
9. Gizarte esku-hartzean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jardueretarako diru-laguntzak.
10. Gizarte-ekonomian ekiteko laguntzak
11. Enpresetarako laguntza teknikoa
12. Gizarte-ekonomiako prestakuntza emateko laguntzak
13. Gizarte-ekonomia finkatzeko laguntzak
14. Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak
15. Enpresen gizarte-erantzukizuna zabaltzeko laguntzak
16. Gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzak
17. Etxebizitza Babesteko Sistema Ofiziala.

1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2014ko ekitaldirako diru-laguntzak ematea.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 15ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei diru-laguntzak ematea arautzen duena (134 zenbakidun EHAA, 2014ko uztailaren 16koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legearen 3112. programaren 12. Lana, Zerbitzuaren 45499. azpikontzeptuko aurrekontu-kredituarekin ordainduko dira erreferentziako aginduan aurreikusitako diru-laguntzak. Aipatutako kredituaren zenbatekoa hauxe da: 1.100.000,00 €; 880.000,00 € 2014rako ordainketa-kreditu gisa eta 220.000,00 € 2015erako konpromiso-kreditu gisa, eta erakunde sindikalen artean, ordezkariaren arabera, honela banatu da:

SINDIKATUA	ORDEZKARI AK	% ORDEZKA IEN	DIRU LAGUNTZA EUROTAN	1.ORDAINKE TA UROAK	2.ORDAINK ETA EUROAK
ELA	7.494	41,61	457.737	366.189	91.548
CC.OO.	3.710	20,60	226.609	181.287	45.322
L.A.B.	3.389	18,82	207.002	165.602	41.400
U.G.T.	2.312	12,84	141.218	112.974	28.244
LSB-USO	356	1,98	21.745	17.396	4.349
ESK	260	1,44	15.881	12.705	3.176
STEE-EILAS	178	0,99	10.872	8.698	2.174
SATSE	97	0,54	5.925	4.740	1.185
CSI-CSIF	63	0,35	3.848	3.078	770
FASGA	38	0,21	2.321	1.857	464
ERNE	33	0,18	2.016	1.613	403
USAE	25	0,14	1.527	1.222	305
SME	24	0,13	1.466	1.173	293
C.C.	9	0,05	550	440	110
HITZA	9	0,05	550	440	110
BAZKUNA	8	0,04	489	391	98
CIM	4	0,02	244	195	49
GUZTIRA		100%	1.100.000	880.000	220.000

Aurreko diru-laguntzak emanez aipatutako sindikatuen hainbat jarduera ordaindu dira; horietatik, besteak beste, eta jarduera sindikalaren berezko gastuez gain, esparru sozioraboreko prestakuntza-jarduerak nabarmendu beharrekoak dira, gehienbat erakundeetako kideei eskainiak. Jarduera sindikalak, zalantzarik gabe, eragin handia du gizartean, bai dagokion esparruagatik, bai barne hartzen duen pertsona sorta zabalagatik. Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkartzaren arabera banatzen dira; horrenbestez, azken hori diru-laguntza zehazteko erreferentziako faktorea da, eta horrexek erabakitzen du deialdiaren diru-laguntzak emateko kontsignatutako kredituak banatzeko formula.

Diru Laguntzen Programan diru-laguntzen 30 espediente izapidetzea aurreikusita zegoen. Azkenik, diru-laguntzak 17 erakunde sindikali eman zaizkie ordezkartzaren arabera; halere, nabarmendu beharra dago horiek guztiek 18.009 ordezkari sindikal biltzen dituztela EAEn guztira hautatu diren 18.888etatik.

1.- Izenburua

Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2014ko ekitaldirako lurralde-batzordeetan eta hauteskunde sindikalen batzordean parte hartzeagatik.

2.- Araua

- 237/200 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Sindikatu Hauteskunde Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituen (245 zenbakidun EHAA, 2006ko abenduaren 26koa).
- AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Honen bidez hasiera ematen zaio azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako Hauteskunde Sindikalen Batzordeko, lurralde-batzordeetako eta Ikuskaritzako kide diren sindikatuentzako 2014. urterako diru-laguntzak emateko prozedurari.
- AGINDUA, 2014ko irailaren 24koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako Sindikatu Hauteskunde Batzordeko, lurralde-batzordeetako eta Ikuskaritzako kide diren sindikatuei 2014. urterako diru-laguntzak emateko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek Hauteskunde Sindikalen batzordean eta lurralde-batzordeetan parte hartzeagatik, bai eta hauteskunde sindikalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna betetzeagatik ere, egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntza hauetarako kreditu osoa 394.000,00 € da (Euskal Autonomia Erkidegoko 2014rako aurrekontu orokorren abenduaren 20ko 4/2013 Legearen 3112. programaren 21. zerbitzuaren 45499. azpikontzeptuaren 002. partidaren ezarritako dago), eta lurralde-batzordeetako eta Hauteskunde Sindikalen Batzordeko kide diren erakunde sindikalen artean honela banatu da:

ELA	98.500,00 €
Euskadiko ELK/CCOO	98.500,00 €
L.A.B.	98.500,00 €
UGT-Euskadi	98.500,00 €

Diru-laguntza horien bitartez lau sindikatuen jarduera ordaindu da 2014an Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko esleituta dituzten eginkizunen garapenari dagokionez, bai eta lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean izandako parte hartzea ere.

Aurrekontu-programan Hauteskunde Sindikalen Batzordeen 60 bilera eta hauteskunde-prozesuak jarraitzeko 1.750 jarduera egitea aurreikusita zegoen; horrenbestez, Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduera sendotzeko helburua bete dela adieraz dezakegu.

Ordezkaritza handieneko sindikatuek lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean agerpen aktiboa izateak zein hauteskunde-prozesuak kontrolatu eta zaintzeko zereginetan parte hartzeak prozesu horiek behar bezala egiteko bermea ez ezik, lortutako emaitzak ere sendotzen dituzte.

1.- Izenburua

Diru-laguntzak enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

2.- Araua

- 191/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematekoa, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko AGINDUA, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako deialdia 2014rako gauzatzen duena. Dekretu horrek, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak emateko aukera arautzen du, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen prestakuntza-planen garapena diruz laguntzeko dira, horien bitartez beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legearen 3112. programaren, 12. zerbitzuaren 45499. azpikontzeptuaren 0004. partidaren aurrekontu-kredituaren kontura ordaindu dira erreferentziako aginduan aurreikusitako diru-laguntzak. Horren zenbatekoa 710.000 euro da; 500.000 euro ordainketa-kreditu gisa 2014rako eta 210.000 euro konpromiso-kreditu gisa 2015eko ekitaldirako. Zenbateko horiek honela banatu dira eskaera egin duten erakunde sindikal eta enpresarien elkarteen artean:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	AURREKONTU ONARTUA	EMANDAKOA	1.ORDAINKETA	2.ORDAINKETA
MANU ROBLES- ARANGIZ INSTITUTUA FUNDAZIOA	489.565,88	185.034,00	129.523,80	55.510,20
EUSKADIKO CCOO-KO SK	146.435,00	91.584,00	64.108,80	27.475,20
LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK	116.371,95	83.657,00	58.559,90	25.097,10
EUSKADIKO UNION GENERAL DE TRABAJADORES. UGT EUSKADI	103.441,53	57.077,00	39.953,90	17.123,10

LSB-USO	24.020,00	8.767,00	6.136,90	2.630,10
EZKER SINDIKALAREN KONBERGENTZIA-E.S.K	27.370,00	6.435,00	4.504,50	1.930,50
EUSKAL ENPRESARIEN KONFEDERAKUNTZA "CONFEBASK"	250.217,48	200.174,00	140.121,80	60.052,20
ELBE ELKARTEA	38.640,00	30.912,00	21.638,40	9.273,60
EUSKADIKO LAN SOZIJATEEN TALDEA- ASLE	38.150,00	30.520,00	21.364,00	9.156,00
EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA	19.800,00	15.840,00	11.088,00	4.752,00

Aurretik zehaztutako diru-laguntzak emanez enpresarien elkarteek eta erakunde sindikalek beren jardura-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko aurkeztutako prestakuntza-planak ordaindu dira.

Fitxa hau prestatzeko unean ez dago lortutako emaitzak zehazterik, diruz lagundutako prestakuntza-planak deialdiaren osteko ekitaldiaren martxoaren 30a arte gara baitaitezke; hala, erakunde eskatzaileek bi hilabeteko epea dute egun horretatik hasita amaierako justifikazio-memoria aurkezteko.

Nolanahi ere, deialdian aurten parte hartu duten 10 erakundeek aurkeztutako eskaeretan 494 prestakuntza-ekintza proposatu dituzte guztira, eta gutxi gorabehera 24.600 lagunek jaso dute prestakuntza 2014ko ekitaldiko deialdiaren barruko planen bitartez.

Enpresarien elkarten eta erakunde sindikalen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta daude laguntzak, baliabide egoki bihurtu daitezzen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziorabiala hobetzeko ekarpena egin dezaten ere sustatzen da..

1.- Izenburua

Udalen harrera-sarea finkatzea:

- **Immigrazio-teknikariak kontratatzeko jarraitzeko laguntzak (TEC lerroa).**
- **Immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak (LOC lerroa).**

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko abenduaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2014. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen helburua da toki-erakundeek beren ekimenez immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean egiten duten esku-hartze soziala bultzatzea.

Laguntza-programak bi lerro ditu:

- TEC lerroak honako kontratu hauetako immigrazio-teknikarien kontratazioa finantzatuko du: 2013an indarrean egonik, alor horretako giza baliabideak eskura izateko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarik jaso duten kontratazioak.
- LOC lerroak immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak prestatzea, gauzatzea edo ebaluatzea finantzatuko du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio-tresna sendotzea, harreraren eta integrazioaren alde (TEC lerroa). 1 magnitudea.

2014an, 17 immigrazio-teknikarik jaso dituzte diru-laguntzak, 13 erakunde publikotan; guztira, 381.920,00 euro.

- Kulturartekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko bitartekoak ezartzea (LOC lerroa). 1 magnitudea.

2014an 35 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 34 erakunderi eman zaie diru-laguntza; guztira, 583.080,00 euro. Baztertu den eskabideak ez du lortu gutxieneko puntuazioa.

1.- Izenburua

Esku-hartze sozialaren eremuan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzekeo diru-laguntzak.

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko abenduaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzekeo eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2014. Urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen lehenengo lerroari dagokionez, langileak (teknikariak eta/edo administrariak) kontratatzen laguntzea du xede, gizarteratzearen, ongizate eta parte-hartze sozialaren arloko prozesuetan gero eta eraginkorragoa izango den esku-hartze soziala tokiko esparrutik sustatzeko; izan ere, prozesu horien bidez, laneratze aktiborako prestakuntza-baliabideetara iristen lagundu nahi da, lehenetasunez.

Bigarren lerroari dagokionez, finantziazioa eman nahi da immigrazioko langile teknikariekin jarraitzekeo eta jarduerak egitekeo, lagungarri izan daitezkeen EAEko erakunde-egituran immigrazioak duen errealitateari hobeto eta sakonago erantzutekeo, eta, oro har, kultura arteko bizikidetzarako mesedegarri diren esku-hartze sozialekeo jarduerak egitekeo.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honen diru-dotazioa 4.091.149 € izan da, guztira. Lehenengo lerrorako, 3.126.149 € bideratu ziren, guztira, eta bigarren dotaziorako, 965.000 €.

Lehen lerrorako, 89 erakunde publikok eskatu dute diru-laguntza.

Bigarren lerroan, 405.790 € bideratu ziren langileak kontratatzekeo. Eta jarduerak egitekeo, 559.210 €.

Gizarte-erabilgarritasun eta -eraginari dagokionez, nabarmentzekoa da jarduera horien bitartez indartu egiten dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoa garatzen parte hartzen duten eragile guztien —instituzionalen eta sozialen— arteko sare-lana; bereziki, pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku-hartzea sustatzekeo dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko lege-proiektuan, diru-laguntzen ildo horietarako deialdia jasotzen da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin beharrekeo jardueren eta helburuen artean; bereziki, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak, bere zuzendaritzekin batera, egin beharrekeotan.

3123 Programaren Memorian (Gizarte Zerbitzuak), esaten da 2014. urterako hurbileko gizarte-zerbitzuak indartzea dela Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan planteatutako helburuetako bat; horregatik, teknikariak edo administrariak kontratatzekeo partida sartu da 2014ko aurrekontuan, udalerrri edo mankomunitateetatik egiten diren esku-hartze sozialeko programa berritzaileetan laguntzeko. Horrek eskatzen du hurbileko gizarte-zerbitzuak indartzea, laguntza teknikoaren bidez, sisteman inplikaturata dauden eragile guztien lana errazteko tresnak garatuz.

3122 programan (Immigrazioa) esaten denez, etorkinak integratzeko zereginean udalerririk egiten duten lanean laguntzen jarraitzen da. Bizikidetzeta, lehenbizi, tokiko gunean gauzatzen da, hots, auzoan, auzoterian eta udalerrian. Horregatik, funtsezkoa da udalerririk baliabideak izatea etorkinak integra daitezen errazteko eta sustatzeko. Udalerrietan martxan jarritako integrazio-programak babesten dira. Programa horien zeregina ez da nagusiki etorkinei zuzeneko zerbitzua ematea, baizik eta bizilagun etorri berriek udal-zerbitzu guztiak berdintasunean baliatzeko aukera izan dezaten bermatzea, bai eta zerbitzu horiek diseinatzerakoan bizilagun berrien berezitasunak jaso eta bildu daitezen bermatzea ere. Hori guztia tresna teknikoaren ekarpenaren bitartez, eta sinergiak koordinatu eta errazteko lana eginez.

Zeregin hori helburu honetan jasotzen da:

2. helburua: ERAKUNDE PUBLIKOEN INTEGRAZIORAKO ZEHARKAKO POLITIKAK HARTZEKO LAGUNTZA

2. EKINTZA: Udal-eremuarekiko lankidetzeta.

3. ADIERAZLEA: Immigrazioaren arloko teknikariak kontratatzekeo, immigrazioari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko, eta immigrazioaren arloko programak gauzatzeko laguntzak.

ADIERAZLEA: Bitartekoak ezartzea kultura-artekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko.

MAGNITUDEA: 1

1.- Izenburua

Pertonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 18koa, zeinaren bidez egiten baita Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia 2014. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen bidez, sustatu nahi dira pertsonen autonomia eta komunitatean integratzea sustatzea eta babestea helburu duten jarduerak, eta, batez ere, esperimentazioa edo berrikuntza dakartenak.

Gizarte esku-hartzearen esparrua osatzen dute jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzen lerro honetarako hasierako diru-zuzkidura 4.438.280 €-koa izan zen, eta jarduerak finantzatzeko erabilitako azken zenbatekoa 4.438.267 €. Guztira, aurkeztu ziren 457etatik, 197 jarduerari eman zaie diru-laguntza, 134 entitateri guztira.

Erabilgarritasunari eta gizarte-eraginari dagokionez, azpimarratu liteke jarduera horiek sare-lana sustatu eta indartzen dutela gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten erakundeetako eta gizarteko eragileekin; bereziki pertonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartzea sustatzen.

Programen eta bilatutako helburuen betearazpen eta betetze-mailari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2014ko ekitaldirako onartu zituen abenduaren 20ko 4/2013 Legean zehaztutako helburuei erreparatuz, orain amaitu den deialdia honela jasotzen da:

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren memorian zehazten denez, *Gizarte Zerbitzuen Sistemaren parte diren Erakunde eta Entitateekiko erakunde-harremanak* izenekoaren jarduera-esparruko ataza nagusietako bat hirugarren sektoreko diru-laguntzei buruzko agindua kudeatzea eta sailak

finantzatutako jardueren balorazioa egitea ahalbidetuko duten ebaluazio-tresnak prestatzea izango da.

3. HELBURUA GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA PUBLIKOAREN GARAPENEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILE GUZTIEKIN (ERAKUNDEAK ETA GIZARTE ERAGILEAK) SAREKO LANA BULTZATZEA ETA INDARTZEA

1. ADIERAZLEA Hirugarren sektoreko erakundeek Sailaren diru-laguntzarekin sustatutako esku-hartze sozialeko proiektuak.

MAGNITUDEA: 300

Diru-laguntza honetako lerroen bidez, diru-laguntza jaso duten esku-hartze sozialeko proiektuen kopuruari dagokionez, baieztatu daiteke zehaztutako helburua partzialki bete dela; izan ere, 197 proiektuk jaso baitute diru-laguntza.

1.- Izenburua

Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adoptatu aurreko familia-harreragatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa.

2.- Araua

- 176/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen (2002ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.).
- 416/2005 DEKRETUA, abenduaren 20koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuaren indarraldia luzatzen duena (2005eko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.).
- 109/2006 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaio edo adoptatzeagatiko diru-laguntza arautzen duena (2006ko ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.).
- 255/2006 DEKRETUA, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen (2006ko abenduaren 27ko EHAA, 245. zk.).
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko Dekretuen xedea familientzako diru-laguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo adoptatu aurreko familia-harreragatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzea.

255/2006 Dekretuan honako jardun-ildo hauek azaltzen dira:

- Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak.
- Erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak.
- Nazioarteko adopzioagatiko laguntzak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

2014ko ekitaldian 29.628.800,00 euroko laguntzak eman ziren, honela banatuta:

- 28.733.100,00 euro 255/2006 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira; haietatik 33.310 ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren, 514 erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak eta 52 nazioarteko adopzioagatiko laguntzak. Era berean, onartu zen % 33ko edo goragoko desgaitasunengatiko laguntzak bikoiztea 284 espedientetan. Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez, 9.932 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren, 13.917 laguntza bigarren semeagatik edo alabagatik, eta 9.461 hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren % 6,90 (4.856.100,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, % 33,64 (9.665.600,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta % 49,46 (14.211.400,00 euro) Bizkaiko espedienteek.

- 895.700,00 euro 176/2002 eta 109/2006 Dekretuak aplikatuz emandako laguntzei dagozkie; laguntza horietatik, 711 erditze eta adopzio anizkoitzagatiko laguntzak izan ziren, eta 1 hirugarren edo ondorengo seme edo alabagatiko laguntza. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren % 14,15 (126.700,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, % 29,67 (265.800,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta % 56,18 (503.200,00 euro) Bizkaiko espedienteek. Seme-alaben jaiotzagatiko edo adopzioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programak inpaktu sozial handia izan du abian jarri zenetik aurrera, denboraldi jakin batean EAEn izandako jaiotza kopurua eta aurkeztutako eskaera kopurua alderatuta ikus dezakegunez, eta horrek aukera ematen digu denboraldi horretako estaldura-tasara hurbiltzeko. Fitxa hau egin denean 2014an izandako jaiotzei buruzko informazio osorik ez daukagunez, 2013ko datuak erabiliko ditugu. EUSTATEk emandako informazioaren arabera, 2013an 19.118 jaiotza izan ziren, eta hasiera batean 17.770 eskaera (18.256 seme edo alaba jaiotzeari, adoptatzeari edo adoptatu aurreko familia-harrerari dagozkionak) aurkeztu ziren; horrek esan nahi du estaldura-tasa % 95,49 dela.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, adierazi behar dugu seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen 2014ko ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura jakinarazteko den Aginduaren izapidetzea dela medio egindako memorian diru-laguntza horietarako aurrekontu-memorian bildu ziren tamainak eguneratu zirela, onuradunen kopuruari buruzko tamainak, hain zuzen ere. Jarraian, ezarritako adierazleak, eguneratutako tamainak eta egikaritze-maila adieraziko ditugu:

- Adierazlea: lehen semearen edo alabaren jaiotzagatiko familia-sorospena. Tamaina: 9.639. Egikaritze-maila: % 103,04.
- Adierazlea: bigarren semearen edo alabaren jaiotzagatiko eta mantenuagatiko familia-laguntza unibertsala. Tamaina: 14.316. Egikaritze-maila: % 97,21
- Adierazlea: hirugarren semearen edo alabaren eta ondorengo jaiotzagatiko edo mantenuagatiko familia-laguntza unibertsala. Tamaina: 9.881. Egikaritze-maila: % 95,75.
- Erditze anizkoitzengatiko, adopzio nazional anizkoitzagatiko, adoptatu aurreko familia-harrera anizkoitzagatiko edo nazioarteko adopzioengatiko laguntzak. Tamaina: 568. Egikaritze-maila: % 99,65.

Adierazlea: laguntzen zenbatekoa bikoiztea desgaitasuna aitortzen den kasuetarako. Tamaina: 250. Egikaritze-maila: % 113,60.

1.- Izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa.

2.- Araua

- 177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.).
- AGINDUA, 2010eko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituen (uztailaren 8ko EHAA, 130. zk.).
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legearen Seigarren Xedapen Gehigarrian ezartzen da % 7ko murrizketa aplikatzea 177/2010 Dekretua betez eman, aitortu edo ordaintzen diren zenbatekoetan.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

177/2010 Dekretuan langileentzako hiru laguntza-linea hartzen dira kontuan familia eta lana bateragarri egiteko:

- Seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak
- Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak.
- Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak; familia-errenta estandarizatuaren arabera ezarriko da laguntza horien zenbatekoa.
- Dekretu horren ondorioz, lehendik zeuden diru-laguntzen lineei eutsi zitzaien; nolahi ere, handitu egin ziren zenbatekoa eta diruz laguntzeko moduko egoerak. Dekretu horren ondorioz sartutako berrikuntza garrantzitsuenen artean, eta Dekretu hori garatzeko Agindu bidez, honako berrikuntza hauek aipatu behar dira: ezabatu egin da aurreko araudian lehenengo bi lineetarako finkatutako gizonen aldeko diskriminazio positiboa, eta zenbatekoak igo egin dira; erabiltzaileek eskaerak elektronikoki izapidetzeko aukera dute; haurrak zaintzeko eszedentzia baliatzeko edo lanaldia murrizteko aukera dute eskola-oporraldietan soilik; ahaideen kasuan, osasun-egoera larriaren kasuan laguntzen estaldura luzatzeko aukera dute; 8 urtera bitarteko semea edo alaba zaintzeko lanaldi-murrizketagatiko laguntzak luzatzeko aukera dute; eskakizun murriztaile batzuk kentzeko aukera dute zaintzaileen kontratazioaren kasuan, eta abar.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urtean 17.302.966,62 euroko laguntzak eman ziren, honela banakatuta:

- 16.784.199,94 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen linean, 13.515 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik % 7,30 gizonak ziren, eta % 92,70 emakumeak. Guztizko gastuaren % 18,27 (3.066.891,68 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta % 81,73 (13.717.308,26 euro) murrizketak diruz laguntzera. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, guztizko zenbatekoaren % 19,78 (3.320.512,65 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen, % 33,69 (5.653.822,23 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko, eta % 46,53 (7.809.865,06 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.
- 349.013,18 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen linean, 280 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik % 20,80 gizonak ziren, eta % 79,20 emakumeak. Guztizko gastuaren % 9,81 (34.254,49 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta % 90,19 (314.758,69 euro) murrizketak diruz laguntzera. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, % 20,58 (71.813,83 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen, % 35,22 (122.916,13 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko, eta % 44,20 (154.283,22 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.
- 169.753,50 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatze linean; 323 pertsona izan ziren linea horren onuradunak. Guztizko gastua honela banatu zen lurraldearen arabera: % 12,00 (20.380,84 euro) Arabako espedienteetarako, % 26,15 (44.382,07 euro) Gipuzkoako espedienteetarako, eta % 61,85 (104.990,59 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

Programaren erabilerari eta inpaktu sozialari dagokionez, adierazi behar da 2011n familia eta lana bateragarri egiteari buruzko luzetarako azterketa bat egin zela. Azterketa horretan lantzen zen zenbaterainoko eragina zuen EAEn bizi ziren eta familia-erantzukizunak zituzten (seme-alabak zaintzeko nahiz mendekotasun-egoeran zeuden ahaideak zaintzeko) pertsonen laguntzeko eta diru-laguntzak emateko neurriak abian jartzeak, betiere hamar urte inguruko esperientziaren azterketatik abiatuta.

Azterketa horretatik ondorioztatu zen uztartze-neurriei heltzen zieten pertsonen gogobetetze-maila (pertsonala eta familiara) igo egin zela. Elkarriketatutako pertsonen % 90,60k esan zuen "seguru" edo "ia seguru" helduko ziela neurri horiei. Soilik % 2,80k esan zuen ez ziela berriro helduko.

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzen zenbatekoari dagokionez, % 26,80k adierazi zuen zenbateko hori oso garrantzitsua edo erabakitzailea izan zela uztartze-neurriei heltzeko; %

37,80k esan zuen ez zela oso erabakitzalea izan, eta, % 34,20k, aldiz, adierazi zuen ez zela erabakitzalea izan. Eusko Jaurlaritzaren laguntzen zenbatekoa garrantzitsua edo erabakitzalea izan zela adierazi zuten elkarrizketatuek nabarmendu zuten Administrazioaren ekimen hori batez ere garrantzitsua zela indartu egiten zuelako uztartzeko jarduna eskatzeko eskubidea izateko konfiantza enpresaren aurrean. Laguntza horrek neurria hedatzen zuen eta ezagutzera ematen zuen.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, adierazi behar dugu familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/20110 Dekretuaren 1. artikulua a), b) eta d) ataletan aurreikusitako diruz laguntzeko jardunen 2014ko ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura jakinarazteko den Aginduaren izapidetzea dela medio egindako memorian diru-laguntza horietarako aurrekontu-memorian bildu ziren tamainak eguneratu zirela, onuradunen kopuruari buruzko tamainak, hain zuzen ere. Jarraian, ezarritako adierazleak, eguneratutako tamainak eta egikaritze-maila adieraziko ditugu:

- Adierazlea: seme-alabak zaintzeko eszedentziengatiko eta lanaldi-murrizketengatiko (oporraldietan garatutakoak barne) laguntzak. Tamaina: 19.206. Egikaritze-maila: % 70,37.
- Adierazlea: Mendekotasuna duten ahaideak zaintzeko eszedentziengatiko eta lanaldi-murrizketengatiko laguntzak. Tamaina: 321. Egikaritze-maila: % 87,23.

Adierazlea: 3 urtez azpiko adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak. Adierazlea: 330. Egikaritze-maila: % 97,88.

1.- Izenburua

Gizarte esku-hartzean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jardueretarako diru-laguntzak.

2.- Araua

- 271/2012 DEKRETUA, abenduaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituena (abenduaren 18ko EHAA, 244. zk.).
- 2013ko abenduaren 18ko AGINDUA, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Aginduaren bidez, Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia egin zen 2014. urterako (abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzetarako programaren esparruko bigarren jardun-linea dira, eta ekintza boluntarioa areagotzera ez ezik, esku-hartze sozialaren eremuan parte-hartze asoziatiboa garatzera, eta bereziki, esku-hartze sozialeko erakundeak, sareak edo federazioak -ahal bada, autonomia-eremukoak- eraikitzen eta hobetuz ere bideratutako jarduerak finantzatzea dute helburu.

Diru-laguntzen deialdia iragarri baino gutxienez urtebete lehenago legez eratuta dauden edo dagokion erregistroan edo administrazio-eroldan erregistratuta dauden, irabazi-asmorik ez duten eta helburu publikoa edo interes soziala lortzea bultzatzen duten, eta beren egoitza soziala edo ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoan duten ekimen sozialeko erakunde pribatuek hel diezaiekete neurri horiei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldian 147 proiektu aurkeztu ziren; horietatik 93k jaso zituzten diru-laguntzak, eta 72 erakunde izan ziren haien buru. Emandako laguntzen zenbatekoa 643.957,00 euro izan zen. Egikaritze hau 2013koarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu % 19,23ko jaitiera izan dela aurkeztutako jardun kopuruari dagokionez, eta % 10,71ko igoera diruz lagundutako jardun kopuruari dagokionez, eta % 14,29ko igoera diruz lagundutako erakunde kopuruari dagokionez. Babestutako jarduerak autonomia pertsonala babestera eta sustatzera eta pertsonak, familiak eta taldeak komunitatean sar daitezela bultzatzera bideratuta zeuden, betiere ekintza boluntarioa hainbat eremutan (degaituak, gaixorik daudenen ahaideak, bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak, adinekoak, gazteak, eta abar) indartu dadin bultzatuz.

Laguntzen erabilera soziala eztaba daezina da, laguntza horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan bildutako prestazioak eta zerbitzuak osatzen baitituzte.

Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 73. artikuluan aurreikusten da irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenari babes publikoa ematea jarduera horiek gauzatzeko.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, adierazi behar dugu aurrekontu-memoriak laguntzak urtero iragartzea ezarri zuela soilik adierazle gisa. Adierazle hori, gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko abenduaren 18ko Agindu bidez ezarri zen.

1.- Izenburua

Gizarte-ekonomian ekiteko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, gizarte-ekonomian ekiteko eta gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena (2014ko abuztuaren 18ko EHAA, 154. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programaren xedea honako helburu hauekin eman zituen laguntzak arautzea izan zen:

- a) Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, dauden enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne.
- b) Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean lotutako sustapen-ekintzak egitea, ondorengo jarraipena eta enpresa-kudeaketarako doako aholkularitza barne.
- c) Krisiaren ondorio nabarmenak agertzen dituzten sozietate anonimo edo mugatuaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa egitea.
- d) Gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako beharrezkoak diren jarduerak egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an lortutako kopuruak:

1. Guztira 210 eskaera aurkeztu dira programa horretan sartzeko, eta eskaera horietatik 206 onartu dira.
2. Enpresa berrien sorkuntzaren barruan, 184 enpresa-proiektu egiteko laguntzak eman dira; horri lotuta, 718 enplegu berri sortu dira eta, enplegu horietatik, 233 emakumeek bete dituzte. 3 eskaera ukatu egin dira, Aginduan araututa dauden hainbat arrazoiren ondorioz.
3. Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko 6 entitate sustatzailek garatutako sustapen-jarduerak finantzatu dira.
4. Lurralde Sustapen Planifikatuari dagokionez, sustapeneko 3 nodo-entitateren lanari lagundu zaio eskualdeko eremuan.
5. 13 bideragarritasun-azterlan egiteko diru-laguntzak eman dira, egoera larrian dauden merkataritza-sozietateak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko.

Lortutako kopuruei eta 2014ko aurrekontuei erantsi zaien Memoriari erantsitako helburu eta adierazleekiko egokitasunari dagokienez, adierazi beharra dago egikaritutako gastua % 100 izan dela eta azken onuradunak Memorian aurreratutakoak baino gehixeago izan direla.

1.- Izenburua

Enpresetarako laguntza teknikoa

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa emateko diru-laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena. (2014ko abuztuaren 18ko EHAA, 154. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa horren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan kudeaketa-tresnen ezarpena sustatu nahi da, enpresak haien administrazioa, zuzendaritza eta, azken finean, lehiatzeko ahalmena hobetuko duten tresnez hornitzeko.

Bestalde, gizarte-ekonomiatik eta gizarte-ekonomiarako bultzatutako elkarrekiko bermeko sozietateen bitartez gizarte-ekonomiako erakundeen enpresa-finantzaketa errazteko laguntza-ildo bat jasotzen da. Horretarako, diruz laguntzeko moduko 3 jarduera mota hartzen dira kontuan:

- a) Urteko Kudeaketa Plana landu eta ezartzea.
- b) Gizarte Ekonomiako erakunde adierazgarriek bermeak emateko beharrezkoa den alde zurreko ekonomia- eta finantza-azterlana egitea.
- c) Kostuak kalkulatu eta kontrolatzeko metodoak landu eta ezartzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an lortutako kopuruak: Diru-laguntzak jasotzeko 56 eskaera aurkeztu dira, eta, zenbait arrazoi direla-eta, 13 ezetsi egin dira. Laguntzak honela banatu dira:

- Kostuak kalkulatu eta kontrolatzeko kudeaketa-planak eta metodoak: 62 kudeaketa-tresnarako konponbidea aurkitu da. Ez dira bereiz agertzen, zenbait kasutan bi jarduerak gainjarri egiten baitira.
- Ekonomia- eta finantza-azterlanak: 2 onuradun izendatu, eta zuzenean lagundutako gizarte-ekonomiako 100 enpresa baino gehiago.

Lortutako kopuruei eta 2014ko aurrekontuei erantsi zaien Memoriari erantsitako helburu eta adierazleekiko egokitasunari dagokienez, adierazi beharra dago egikaritutako gastua aurrekontuan aurreikusitakoa baino handixeagoa izan dela eta gauzatzean soberazkoak izan diren aginduei lotutako baliabideak erantsi direla.

Azken onuradunak Memorian aurreratutakoak baino askoz gehiago izan dira.

1.- Izenburua

Gizarte-ekonomiako prestakuntza emateko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzarako laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena. (2014ko abuztuaren 18ko EHAA, 154. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programan horren bidez, honako jarduera hauek egiten lagundu nahi da:

* Prestakuntza-arloan:

- Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza espezifikoa eta bereizira bideratutako ekintzak, unibertsitate- eta/edo sozietate-eremuan kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko ezagutzari hasiera emateko, edo, oro har, ezagutza horretan gaitzeko edo perfektionatzeko helburua dutenak.
- Gizarte-ekonomiako enpresa bat diseinatzeko eta abian jartzeko ekintzak, unibertsitate-prestakuntzaren parte gisa, eta haren tutoretzaren pean.
- Gizarte-ekonomiako sozietateen araudi-garapenerako unibertsitate arteko ekintzak, betiere EA Erenaren denean sozietate horien araudia garatzeko eskumena.

* Gizarte-ekonomiaren hedapen-arloan:

- Kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldizkako argitalpenak editatzea.
- Aldian behingo jardunaldiak egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an lortutako kopuruak:

18 diru-laguntza eman zaizkie (21 eskaera aurkeztu ziren) hainbat erakunde eskatzaileri. Diru-laguntza jaso duten proiektuek honako kopuru hauek izan dituzte aurkeztutako jarduerak eta jardunak egitean:

- Gizarte-ekonomiako prestakuntza espezifikoa eta bereizita emateko ekintzak: prestakuntza hori 1.000 pertsonak baino gehiagok jaso dezakete.
- gizarte-ekonomiako enpresa bat diseinatzea eta abian jartzea, unibertsitate-prestakuntzaren parte gisa. Berriki eratutako 2 junior-kooperatibak diru-laguntza partziala lortu dute hasierako eraketa-gastuetarako.
- Kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldian behingo argitalpenak editatzea: 8 argitalpenek jaso dute diru-laguntza.
- Aldian behingo jardunaldiak egitea: 19 jardunaldik jaso dute diru-laguntza.
- EA Eren araudi-eskumeneoak diren gizarte-ekonomiako sozietateen arau-garapenari dagokionez, 3 unibertsitatek jaso dute diru-laguntza.

Lortutako kopuruei eta 2014ko aurrekontuei erantsi zaien Memoriari erantsitako helburu eta adierazleekiko egokitasunari dagokienez, adierazi beharra dago egikaritutako gastua aurrekontuan aurreikusitakoa baino handixeagoa izan dela eta gauzatzean soberazkoak izan diren aginduei lotutako baliabideak erantsi direla.

Azken onuradunak Memorian aurreratutakoak baino askoz gehiago izan dira.

1.- Izenburua

Gizarte-Ekonomia finkatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta erakundeen elkarte-egiturak finkatzeko laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena. (2014ko abuztuaren 22ko EHAA, 158. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-ildo honen helburua honako hau da: nortasun juridiko propioa duten eta interes komunak ordezkatu eta babesteko honako hauek elkartzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako erakundeen elkarte-egiturak finkatzea:

- a) Lan-sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak.
- b) Lan elkartukoez bestelako kooperatibak eta elkarte konfederalak.
- c) Ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu-zentro berezien elkarteak.
- d) Langile autonomoen sektore arteko erakundeak, gutxienez bi urteko antzintasuna dutenak.

Programa honen kontura emandako laguntzak erakunde onuradunen egitura-gastuak finantzatzeko erabiliko dira (langile-gastuak eta funtzionamendu arrunteko gastuak, funtsean).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an lortutako kopuruak:

Gizarte-ekonomiari lotutako Euskadiko 12 elkarte-egitura mantentzen lagundu ahal izan da. Zehazki, honako hauek izan dira:

- Lan elkartuko kooperatiben federazio 1.
- Lan-sozietateen talde 1.
- Kooperatiben konfederazio 1.
- Lan elkartukoez bestelako kooperatiben 4 federazio eta kooperatiben elkarte bat.
- Ekonomia solidarioko elkarte 1.
- Enplegu-zentro berezien 2 elkarte.
- Langile autonomoei lotutako 2 elkarte.

Lortutako kopuruei eta 2014ko aurrekontuei erantsi zaien Memoriari erantsitako helburu eta adierazleekiko egokitasunari dagokienez, adierazi beharra dago egikaritutako gastua aurrekontuan aurreikusitakoa baino handixeagoa izan dela eta gauzatzean soberazkoak izan diren aginduei lotutako baliabideak erantsi direla.

2014ko Aurrekontuen Memorian aurrez zehaztutako azken onuradunei beste onuradun bat gaineratu behar izan zaie, laguntzak lortzeko baldintza objektibo eta subjektiboak betetzen dituela kontuan hartuta. Hortaz, azkenean 12 erakundek jaso dute diru-laguntza.

1.- Izenburua

Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena. (2014ko abuztuaren 18ko EHAA, 154. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea honako hau da: bazkide langileak edo lan-bazkideak gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko laguntzea, epe jakin batean (2013ko abuztuaren 1etik 2014ko uztailaren 31ra bitarte). Lau motako hartzaileak daude:

- a) Kooperatiba edo lan-sozietate batean sartzeko langabeak, betiere eratu direnetik 5 urte baino gehiago igaro ez badira eta bazkide langileak 100 baino gehiago ez badira. Halaber, dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez hiru hilabeteko antzintasunaz inskribatuta egon behar dute.
- b) Bazkideak ez diren langileak, besteren konturako lan-kontratuarekin.
- c) Desgaituak.
- d) Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiategiaren eta ustiategi mistoen titularrak, betiere nekazaritza-kooperatibetan bazkide gisa sartu badira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Kapitalerako ekarpenen diru-laguntza partzialaren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan 120 bazkide sartzeko bultzatu da, honako banaketa honekin:

- 20 langabe sartu dira.
- Besteren konturako 71 langilek diru-laguntza jaso dute gizarte-ekonomiako enpresa bateko bazkide langile edo lan-bazkide bihurtu direnean.
- Desgaitasunen bat zuten 2 pertsonak laguntza publikoa jaso dute gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide langile gisa sartu direlako.
- Nekazaritza-kooperatibetan sartu diren eta diru-laguntza jaso duten bazkideak 27 izan dira.

Lortutako kopuruei eta 2014ko aurrekontuei erantsi zaien Memoriari erantsitako helburu eta adierazleekiko egokitasunari dagokienez, adierazi beharra dago egikaritutako gastua ia % 100 izan dela.

Azken onuradunak aurreikusitakoak baino gehixeago izan dira.

1.- Izenburua

Enpresen gizarte-erantzukizuna zabaltzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko entitateen artean Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko laguntzak arautzen dituena eta laguntzearako deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE) zabaltzeko ekintzek osatzen dute. Bi jarduera motatan gauzatzen dira:

- a) Jardunaldiak, mintegiak eta antzeko jardun guztiak egitea.
- b) EGEaren inguruko esperientziak eta materialak biltzea, EGEda hedatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko bi jarduera egiteko aukera erraztu da, eta horretarako babes ekonomikoa eman da.

Lortutako kopuruek ez dituzte bete aurreikuspenak. Kalkulatutakoaren arabera, diru-laguntza programaren izaera eta esparru horretan diharduten entitateekiko alde aurreko harremanak kontuan hartuta, askoz eskatzaile gehiago aurreikus zitezkeen.

1.- Izenburua

Gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena. (2014ko abuztuaren 18ko EHAA, 154. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- a) Gizarte-ekonomiako enpresen adierazgarri diren elkarteek beren bazkideentzat lankidetzaproiektu bat lantzea eta ezartzea.
- b) Akordioak landu eta formalizatzea, eta enpresen arteko lankidetzarako enpresak edo egiturak sortzea, gizarte-ekonomiako enpresek bat-egiteko beharrezkoak direnak barne.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Enpresen arteko lankidetzarako proiektuak eta haien ezarpena: 1
- Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egiteak: 5
- Enpresen arteko lankidetzarako bideragarritasun-azterlanak. 3

2014rako diru-laguntza ildo berri horren bidez ez dira lortu aurreikusitako kopuruak. Balantze errealari dagokionez, espero ziren emaitzen eta aurrekontuei erantsitako Memorian jasotako onuradunen % 50 baino gehixeago lortu da.

1.- Izenburua

Etxebizitza Babesteko Sistema Ofiziala.

2.- Araua

Etxebizitzaren eta Hiri-berroneratzearen Plan Zuzentzaileak hartzen du etxebizitzaren politika ofizialaren 2014ko programazioa.

Aplikazio-araua honako hau da:

Babes-ofizialeko Etxebizitzen erregimena:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari, eta etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloko finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA, 59. zk., 2008ko martxoaren 28koa).
- AGINDUA, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena. (EHAA, 187. zk., 2011.eko irailak 30).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, (EHAA, 211. zk., 2012.eko urriak 31).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (EHAA, 251. zk., 2012.eko abenduak 28).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzkoa. (EHAA, 251. zk., 2012.eko abenduak 28).

Babes-ofizialeko etxeen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Gehieneko Prezioak Zehazteari buruzkoa (EHAA, 222. zk., 2010.eko azaroak 18).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, (EHAA, 211. zk., 2012.eko urriak 31).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (EHAA, 251. zk., 2012.eko abenduak 28).

Babes-ofizialeko etxebizitzak erosteko finantza-neurriak eta etxebizitza libre erabilia:

- AGINDUA, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza Erosteko Finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA, 203. zk., 2010.eko urriak 21)
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (EHAA, 247. zk., 2011.eko abenduak 30).

Alokairua sustatzea:

- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (EHAA, 222. zk., 2008.eko azaroak 19).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (EHAA, 247. zk., 2011.eko abenduak 30).

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, ondoko dekretua aldatzen duena: "Etxebizitza Hutsaren Programa" sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta "Vivienda y Suelo de Euskadi S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, SA" (Visesa) Baltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen diona: (VISESA). (EHAA, 110. zk., 2004.eko ekainak 11).
- 61/2009 DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, honako dekretu hau hirugarrenez aldatzen duena: 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta programa kudeatzeko ardura «Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA» sozietateari ematen diona (EHAA, 59. zk., 2009.eko martxoak 26).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (EHAA, 247. zk., 2011.eko abenduak 30).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko Agindua aldatzekoa. (EHAA, 239. zk., 2004.eko abenduak 16).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren lagapen-baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko Agindua aldatzen duena. (EHAA, 225. zk., 2009.eko azaroak 23).
- 466/2013 DEKRETUA, 2013ko abenduaren 23koa, Etxebizitza hutsen gaineko «Bizigune» programa arautzekoa. (EHAA, 247. zk., 2013.eko abenduak 30).

Lurrazal eskubidean eraikitako etxebizitzaren zorua saltzea:

- AGINDUA, 2013ko azaroaren 20koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena,

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lurzorua erosteko baldintzak ezartzeko dena, lurzoru horretan azalera-eskubideko zenbait higiezin eraikita baitaude. (EHAA, 227. zk., 2013.eko azaroak 28).

- AGINDUA, 2014ko otsailaren 7koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lurzorua erosteko eskabideak aurkezteko epea handitzeko dena, lurzoru horretan azalera-eskubideko zenbait higiezin eraikita baitaude. (EHAA, 34. zk., 2014.eko otsailak 19).

Etxebizitza birgaitzea:

- AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza Birgaitzeko Finantza-neurriei buruzkoa. (EHAA, 18. zk., 2007.eko urtarrilak 25).
- AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua aldatzeko dena. (EHAA, 226. zk., 2011.eko azaroak 29).
- 317/2002 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. (EHAA, 249. zk., 2002.eko abenduak 31).
- Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 DEKRETUAREN akatsak zuzentzea. (EHAA, 69. zk., 2003.eko apirilak 7).
- AGINDUA, 2012ko uztailaren 18koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntza-programa arautzen duena (REVIVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (EHAA, 146. zk., 2012.eko uztailak 27).
- 241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena. (EHAA, 241. zk., 2012.eko abenduak 14).
- AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programaren deialdia eta arauak egiten dituen (RENOVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (EHAA, 157. zk., 2013.eko abuztuak 20).
- AGINDUA, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua bigarren aldiz aldatzen duena. (EHAA, 229. zk., 2014.eko abenduak 1)
- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena (EHAA, 101. zk., 2014.eko maiatzak 30).

Lankidetzarako hitzarmena finantza-erakundeekin:

- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia

Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (EHAA, 247. zk., 2011.eko abenduak 30).

- 228/2012 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzako Dekretua aldatzeko dena. (EHAA, 221. zk., 2012.eko azaroak 15).

Mailegu kualifikatuen interes-tasa:

- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (EHAA, 247. zk., 2011.eko abenduak 30).
- 228/2012 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzako Dekretua aldatzeko dena. (EHAA, 221. zk., 2012.eko azaroak 15).

Babes ofizialeko etxebizitzetara bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzoruakostu bidez eskuratzeari dagozkion finantza-neurriak.

- AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriei buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (EHAA, 39. zk., 2010.eko otsailak 26).

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa.

- 43/2012 DEKRETUA, martxoaren 27koa, Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) sortzeko dena. (EHAA, 66. zk., 2012.eko martxoak 30).
- 180/2014 DEKRETUA, irailaren 23koa, Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programa sortzeko den martxoaren 27ko 43/2012 Dekretua aldatzeko dena. (EHAA, 185. zk., 2014.eko irailak 30).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitza babesteko Sistema Ofiziala, diru-laguntza-modalitatean, etxebizitzak sustatzeko, erosteko eta birgaitzeko, etxebizitza eta lurzoru arloan araututako jarduketa babesgarrien eremuan.

Sistema honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten kreditu-erakundeek maileguak ematen dituzte (Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta kreditu-erakundeen arteko finantza-hitzarmenaren eremuan), eta diru-laguntza zuzenen sistema eta maileguen interes-puntuetarako sorospenen sistema artikulatzen du, arauak ezartzen dituen babesteko kasu zehatzetan eta tasatuetan.

Sorospenen kasuan, jarduera babestuak bideratzen dira lurzorua erostera eta urbanizatzen soilik, etxebizitza babestuko eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen kasuan, lurzorua eta alokairua bezalako aurreko ildoetara erantsi behar zaizkie etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea eta etxebizitza libre erabiliak erostea. Diru-laguntzak jarduera-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio mailakatu baten sistema baten bidez onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera. Sistema orokor horretatik kanpo, hauek kudeatzen dira: Bizigune programa etxebizitza hutsak mobilizatzeko, eta Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Emandako laguntzen balantze orokorrari dagokionez, 2014an emandako mailegukopurua mantendu da, finantzatzeko zenbateko osoa gutxitzen bada ere.
- Onartutako maileguen azterketak agerian uzten du etxebizitzaren sustapenaren finantziarioa, 2014ko ekitaldian, 12,7 milioi eurokoa dela; 2013an, berriz, 31 milioi eurokoa, banku-finantza zifretan emanda.
- 2014an, partida finantzario handiena izan da babes ofizialeko etxeak erostera bideratutako maileguena, 29,8 milioi eurora iritsi baita. Etxebizitza libre erabiliak erosteko onartutako maileguak ia-ia mantentzen dira 2013ko zifretan: 4,8 milioi euro. Bestalde, birgaitzeko maileguak behera joaten jarraitzen dute, aurreko ekitaldietan bezala, eta ostatua finantzatzeko ez da mailegurik ematen.
- Hainbat urtetik hona krisialdi finantzario eta ekonomiko larritik etorritako egoera ezarri da eta etxebizitza finantzatzeko geldialdia ekarri du, baita bankuko maileguak eskuratzeko baldintza zorrotzagoak eta salerosketa gutxitzea ere.
- Maileguen zenbatekoa aztertzen badugu, etxebizitza erosteko maileguen batez besteko nominala 100.450 €koa da.

**Onartutako maileguen laburpen-taula, 2010-2014
(2015/02/27an eguneratutako datuak)**

Mota	2010		2011		2012		2013		2014	
	Kop	Mila €	Kop	Mila €	Kop	Mila €	Kop	Mila €	Kop	Mila €
Sustapena										
Birgaitzea										
Etxeb. sozialak erostea										
Babeseko etxeb. erostea										

Etxeb. erabiliak erostea										
Udaleko tasatuak erostea										
Alokairukoak erostea										
Zuzkidura-alojamendua										
Orokorra-Lurzoria eta urbanizazioa										
Guztira										

- Birgaitzeko maileguei erreparatzen badiegu, onartutako mailegu guztien bolumenaren % 83 dagozkie birgaitze isolatuko jardueri (1,3 milioi euro); gainerako % 17, berriz, jarduera bateratuetako birgaitze-maileguei dagozkie (0,3 milioi €). Maileguen nominalari dagokionez, birgaitze integratuko batez bestekoa 11.261 €-koa da, eta birgaitze isolatuarena 7.013 €.

Onartutako laguntzak: etxebizitzak birgaitzeko
(2015/02/27an eguneratutako datuak)

Maileguak	2010		2011		2012		2013		2014	
	Kop	Mila €	Kop	Mila €	Kop	Mila €	Kop	Mila €	Kop	Mila €
Birgaitze isolatua										
Birgaitze integratua										
Guztira										

- Diru-laguntzen kapituluari dagokionez, 2014an, etxebizitzak birgaitzeko eta eskuratzeko diru-laguntzak onartu ziren 13,5 milioi eurotan; guztira, 11.636 etxebizitza. Ia zenbateko osoa etxebizitza birgaitzeko da.
- Etxebizitzak birgaitzeko eta eskuratzeko 2014an eman ziren diru-laguntzen zifrak jarraitzen du 2009an hasitako etengabeko beherakadaren bidea.

Etxebizitzen diru-laguntzak (2015/02/27an eguneratutako datuak)


Diru-laguntzak	2011		2012		2013		2014	
	Kopuru a	Mila €	Kopuru a	Mila €	Kopuru a	Mila €	Kopuru a	Mila €
Erosleak Birgaitzea								
Diru-laguntzak, guztira:								

- Alokairua bultzatzeko diru-laguntzei dagokienez, urte batzuetarako diru-laguntzak onartu dira 2014an 5,2 milioi eurotan (2014/2016). Eragindako etxebizitzen kopurua: Babes ofizialeko 212 etxebizitza eta 11 zuzkidura-alojamendu.

BIZIGUNE PROGRAMA.

- 2014 urtearen bukaeran, Bizigunek 4.590 etxebizitza libre zituen, alokairu babestuan erabiltzeko lortuta. Balio horrek berekin dakar etxebizitza kopurua murriztea 2013 urtearen aldera.
- Bizigunek lortutako etxebizitza gehienetan dauden maizterrek horrela konpondu dute etxebizitza-premia; zehazki, 4.279 etxebizitza, guztiaren % 93. Gainerako 311 etxebizitza dira amaiera datan esleipen-prozesuan dauden txandakatze-etxebizitzak.
- Lurralde Historikoen arabera etxebizitzak banatzean, Bizkaiak hartzen ditu etxebizitza gehienak (guztiaren % 60,2). Gipuzkoak batzen du % 26,1 eta Arabak gainerako % 13,7.

**Biziguneren etxebizitza kopuruaren bilakaera
(urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak)**



- Bizigune programari bideratutako funtsen bolumena % 19,3 milioi eurokoa izan da 2014an, 2013ko aurrekontuaren % 20,49 milioi euro baino % 6 gutxiago

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZEN ALOKAIURAKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA.

- ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzen alokairurako bitartekaritza-programaren helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuko merkatura bideratzea arrazoizko prezioan errentarientzat.
- Aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat ezarri da ez-ordainketak, egon daitezkeen kalteak eta laguntza juridikoa barne hartzen dituen, etxebizitza hutsen jabeak programa honetan parte-hartzea sustatzeko asmoz.
- Jabeei eskainitako bermeen truke, alokairuen gehieneko prezioak finkatuko dira, merkatu librean baino prezio txikiago eta lehiakorragoak bermatuz; horretaz gain, egoera sozio-ekonomikoa dela-eta merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza eskatzaileek aukera gehiago izango dute alokairuko-etxebizitzak eskuratzean.
- Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritza Agente Laguntzaileen Sarea sortu du; hainbat eginkizun transzendentel hartuko ditu gain, aipatu programa abiarazteko eta funtzionamenduan jartzeko.
- Sortu zenetik, 17 agente laguntzailek eman dute izena; honela daude lurraldeka banatuta:
 - Araba: 2
 - Bizkaia: 5
 - Gipuzkoa: 8
 - Alokabide, bulegoak ditu hiru lurralde historikoetan
 - Entitate 1, Araban eta Bizkaian bulegoak ditu
- 142 etxebizitza hartu dira. Eta 85 errentamendu-kontratu sinatu dira.
- Ikusi dugu etxebizitza hutsen jabeek oso harrera ona egin diotela programa honi, etxebizitzak programan sartzeko. Era berean, harrera ona izan du Eusko Jaurlaritzak kontratatutako aseguruaren estaldurak. Horregatik, ondorioztatzen da diru-laguntzen programa mantentzearen aukera nabarmena. Dena dela, prozedura telematikoen bidez abian jartzea motela eta konplikatua gertatzen ari da; horregatik, egokitzea behartuko du adjudikazioen kudeaketa malgutzeko.